

Ama, mirestu egin zaitut. Beste behin.

Ez al duzu ba arratsaldero etxean zehar oinez ibilaldia egin, berrogei minututakoa, zure osasuna mantentzeko? Guk txirrindula behar genuen, edo estera txikia, edo zapatila hobeak edo... beteko gintuen zeozer, zer zen argi eduki gabe. Eta zuk, sinple. Zapatak jantzi eta etxean aurrera atzera, zirt-zart, belaunak biziberritzeko eta arintasunari eusteko “daukadan osasunari ezin diot ba alde egiten utzi”. Korrika txikitan ere entzuten zintudan tarteka, edota beroki lodia jantzi eta balkoiko sei metroak aurrera atzera bizi-bizi egiten ikusten zintudan -berokia jantzi beharra dago itsasoko haizeak gogor jotzen duenean-. Ni jarri ninduzun oinez ere balkoian honela, osasuna zaintzeko. Zuri esker, zu baizintudan eredu. Ospakizunak ere egin ditugu ugari, “ospatzen jarraitu beharko dugu ba!”, pastelak eginez, eta kandelak biztuz.

Ni baino hobeto egin diozu aurre etxean egote honi, nik, ondoeza, lo egin ezina eta indargabetasuna bizitu baititut. Gaizki egon naiz. Lo gaizki eta gutxi egin dut, dutxa beroak hartu ditut goizaldeko ordu txikitan eta goizean jaiki eta lanera, konektatzera, nire postua funtsezko lantzat izendatu baitute egunotan. Funtsezkoa, nire lanpostua? Ba bai, ze gauzak! Nork esango lidake halakorik duela hiru hilabete, mirrina sentitzerainoko gertakizunak izanik lanean...

Agian, garrantzitsuak ez ziren lan eta pertsona horiek garrantzitsuak direla azalerazteko balio izan du aldi honek, agudo ahaztuko badugu ere hau dena. Giza izaera da, bizi-irautea eta egoera berrietara egokitzea, beti egokitzea.

Baina zuk, ama, ez duzu ondoezik erakutsi, ez gogo-ezik, ez akituta, nekeak-jota, abailduta zeundenaren zantzurik, nik egun askotan sentitu bezala. Eta okerrena zen, ez nintzela nahikoa nekatzen eta emozionalki leher-eginda nengoela. Arnasa sakon hartu dut. Ez dut uste egur bereko ezpala naizenik! Zu bai hilobi arte antz-aztura!!! Hortxe aritu naiz ni, bitartean, ezki-ura, kamamila, erregaliza... hartu eta hartu, lasaitzearren. Lagundu dute, onartu behar dut... eta baita etxean egon bitartean txirrindula estatikoan egin izanak.

Trafiko gabe, tea hartu ahal izan dugu balkoian eserita, itsasoari eta hondartzari begira, txorrotxioa eta olatuen lehertzea entzuteko aukerarekin, zer lasaigarria, trafikoak soinu gozo denak itotzen baititu bestela. Ito, gain hartu eta gainera, kutsadura -akustikoa zein airekoa- izugarria sortu: ez dut hau faltan botatzen, trafikoa esan nahi dut. Horrela jarraituko bagenu, hobe. Ekaitzak eta trumoiak ere bere horretan entzuteko aukera izan dugu, burrunba luzearekin mendiaren oihartzunak eraginda. Ikusgarria!

Ama, ez dudan beste sendotasun bat erakutsi didazu. Itxaropen handiagoa eta gaitzari aurre egiteko euskarri zabalagoa. Barne baliabide gehiago, zu zeu horretaz jabetzen ez bazara ere. Zuretzat, sinplea izan baita gauzei horrela aurre egitea. Etorri diren bezala aurre egitea.

Lehenago banekien hurrekin ona zinela, aparteko irakaslea izan zaitugula haurretan, aholku egokiak eman dizkiguzula, gaztetan eta heldutakoan ez gaituzula inoiz alboratu, beti laguntzeko

prest izan zaitugula, zure burua ahazteraino... eta orain, gauzei datozen bezala aurre egiteko gai zarela, sinpleki, buruari buelta asko eman gabe eta eginez.

Ba bale. Beste irakasgai bat gehiago nire zerrendarako!

Eta eskerron poza.

Untzene (ezizena)